



Sarkozy



Royal



Le Pen



Bayrou

Apirileko 22an burutuko dira Frantziako presidentea hautatzeko hauteskundeak. Hamabi hautagai ari dira Eliseo jauregira iristeko lehian. Ez dirudi inork bozen gehiengo osoa lortuko duenik, beraz, bi pasako dira maiatzaren 6ko bigarren itzulira. Nicolas Sarkozy (UMP), Ségolène Royal (PS), François Bayrou (UDF) eta Jean-Marie Le Pen (FN) dira hautagai nagusiak. Normalean Sarkozy izanen da bigarren itzulian, arerioa nor izanen duen argitzeke dago.

MIKEL ASURMENDI

Bigarren itzulian: Sarkozy eta Royal? Sarkozy eta Bayrou? Le Pen aiduru

FRANTZIAKO HEGO MUTURREAN

—Hendaian— bizi da hitz hauen erre-daktorea. Hilabeteak dira Estatu hone-tako presidentea hautatzeko kanpainaren zurrunbiloa sentitzen duela. Kanpaina, era ofizialean, apirilaren 10ean hasi da. Erreportari honek, aldiz, kanpainaren aldaba-hots nagusia apirilaren 3an sentitu zuen, Jacques Chirac presidentea Baionara etorri zelarik. Estatuburuak, ordurako, Nicolas Sarkozy hautagaiaren sosten-

gu publikoa adierazi zuen. Armadari egindako bisitaldian eta gorazarrean adierazi edota aipatu ez zuena Euskal Herria da. Alabaina, Errepublikako presidentea Euskal Herrian zegoen. Herriak presidentea ezagutzen du, baina presidentek ez du herria ezagutzen nonbait. Balio bezate sarrerako hitz hauek Frantziako hauteskunde presidentzialak “gurean” kokatzeko, baita gure demokraziaren seaska omen denaren funtsa ulertzeko ere.

12 hautagai, guztira 40 ziren arren

Hamabi dira presidentziarako lehian ari diren hautagaiak, alta bada, beste 28 inguruk ere kandidatura aurkeztu zuten. Hauek ez zituzten ordea, legeak lehiatzeko eskatzen dituen tokian-tokiko 500 hautetsien sinadurak lortu. Herritarroi gero eta ezezagunagoak zaizkigu mendebaldeko demokraziaren ezaugarriak. Demokraziaren gabeziak agerian uztera iritsi gabe, hona datu batzuk sistemaren izaera ezagutzeko:

Frantziako Presidentzialak

Hautagaiak	Alderdiak		(2002)	Inkestak (2007)
 François Bayrou	 UDF	Bigarren itzulia pasaz gero, ustekabea eman lezakeen hautagai bearnesa.	% 6,84	% 18
 Olivier Besancenot	 LCR	Ezker historikoko kidea. Inoiz aurkeztu den hautagai gazteena; 28 urterekin 2002an.	% 4,25	% 3,5
 José Bové	 Laboraria eta altermundista	Beste mundu bat aldarrikatzen duen laboraria. Euskal Herrian ezaguna.	—	% 2,5
 Marie-George Buffet	 PCF	Feminista, populista eta Errepublikaren ezkerreko baloreen aldekoa.	% 3,37	% 2,5
 Arlette Laguiller	 LO	Presidentziarako aurkeztu zen lehen emakumea. Azken aldikoz aurkeztu da.	% 5,72	% 1
 Jean-Marie Le Pen	 FN	Frantziako demokrazia ezbaian jartzen duen eskuin muturreko hautagaia.	% 18,86	% 12
 Frédéric Nihous	 CPNT	Ehiza, arrantza, natura eta tradizioa aldarrikatzen dituen ehiztaria.	% 4,23	% 1
 Ségolène Royal	 PS	Lehen emakume presidentea izan daiteke. Zentroa irabazi behar du ordea.	% 16,18	% 27
 Nicolas Sarkozy	 UMP	Hautagai faboritua. Errepublikaren segurtasuna da bere lema nagusia.	% 19,88	% 30
 Gérard Shivardi	 PT	Sindikalista da. Frantziako komunak edo herriak aldarrikatzen ditu.	% 0,47	% 0,5
 Philippe de Villiers	 MPF	Sarkozy eta Le Penen artean lekua bilatzen du. EBri eszeptizismoz begiratzen dio.	—	% 1
 Dominique Voynet	 Les Verts	Ministro izana. Senataria da. Hala ere, inkestak emaitza apalak ematen dizkiote.	% 5,25	% 1

2002ko hauteskundeetan Jacques Chirac presidentea 5.666.440 bozka erdietsi zituen. Eta, esaterako, ezkerreko hautagaiak —Arlette Laguiller (LO: 1.630.244. Noël Mamère (Berdeak): 1.495.901. Olivier Besancenot (LCR): 1.210.694 eta Robert Hue (PCF): 960.757— 5. 297. 596 boz jaso zituzten. Balio biezazkigute datuok halaber, hauteskunde hauek ulertzeko.

12etatik 4k dute benetako xantza

Hamabi hautagaietatik (ikusi infograma) lauk dute bigarren itzulira pasatzeko benetako xantza edo aukera: Nicolas Sarkozy (UMP), Ségolène Royal (PS), François Bayrou (UDF) eta Jean-Marie Le Pen (FN). Frantziako hauteskunde presidentzialek gero eta antza gehiago hartu diote AEBetakoiei. Konparazione, Frantzia iparraldean 800 herrietan boto sistema elektronikoa ezarri da funtzionamenduan. Sisteman aipatutako lehen hiru hautagaiak baino ez dira ageri. Barne Ministerioak —Nicolas Sarkozy izan da barne ministroa orain gutxi arte— ezarritako sisteman ez da ageri Le Pen hautagaia. Oso adierazgarria da. 2002ko hauteskundeetan Le Penek 4.805.307 (bozen %16,86) lortu zituen lehen itzulian eta Chiracekin lehian zen presidente izateko bigarrean. Le Pen Europako demokrazia “umezurtz” uzteko zorian izan zen. Sarkozyk ez du 2002an gertatua errepikatzea nahi, gainera eskuin muturreko bozak behar ditu.

4etatik 3 nagusi, eta 2 pasako dira

Le Pen sistema demokratikoaren mehatxu izaki, presidente izateko aukera handiena bide duten Sarkozy, Royal eta Bayrou hautagaiengan erreparatu dugu segidan.

Nicolas Sarkozy

Nicolas Sarkozy Jacques Chirac presidentearen abaroan onduz joan da, RPR alderdian. Hasieran Chiracen laguna, eta azkenean arerioa bihurtuz. RPRko presidentea izan da Sarkozy, baita Donibane Lohizuneko auzapez ohi Michèle Alliot-Marie ere. Egungo Armada ministro Alliot-Mariaren gusturako, azken urteotan Sarkozy sobera lerratu da eskuin muturrera; Alliot-Marie eta Chirac oso hurbilekoak izaki. Sarkozyk honela dio bestalde: “Ségolène Royalek ez du nire hautesleengan eraginik”. Ez du uste

BOST URTE IRAGAN DIRA ETA BER GAUZA?



Bost urte iragan dira, apirila igande arrastiri triste hartan, hauteskunde presidentzialetak bigarren itzulirako Le Pen eskuin muturrekoa sailkatu zenetik. Hauteskunde gau hartan, zin egin zuten politikari orok, halakorik ez zela berriz gertatuko. Ikasgaia ulertu zutela. Frantsesen mezua entzun ere bai. Errepublikarrek bat egin zuten ultraeskuindarraren aurka. Jacques Chirac, abantxu, frantziar guztien presidentea bihurtu zen %82 erdietsirik.

Alabaina, presidentearen legealdi baten ondotik, hor dago beti Jean-Marie Le Pen. Azken inkesten arabera, botoen %16 bederen lor dezake. Kezkagarriena da, pittaka-pittaka, igotzen ari dela. Eta orain dela bost urte bezala, une bertsuan, inkestek ematen zioten boto intentzioa baino askoz handiagoa da. Gainera, Le Pen bozkatzen duen jende andana batek inkestetan horren aitormena ez duela egiten kontuan hartu behar da! Berriz ere "bigarren" hautagaia izan daiteke?

Alta, oferta ezberdina da: Alderdi Sozialistak (PS) lehen aldikoz, emazte bat aurkezten du –betiko alderdikideetarik desmarkatu nahi zuena baina–. Ségolène Royal eta Le Penen arteko aldea 8 puntutakoa da. Eta tipituz doa. Alta,

"gobernuko ezker" batuagoa da, aldi honetan ez baita ezkerreko hautagai soberanistarik ezta erradikalik ere. Alta, ezker-ezkertiarrak, Europako Itunaren erreferendumaren garaileak, ezetzak irabazirik, sakabanaturik (4 kandidatu), inkestetan behintzat oso apal daude. Berdeak eta Alderdi Komunista bezala (PSko gobernukide ohiak).

Ze gertatzen da orduan, inpresio horren bitxia izateko? Le Penek esan ohi duenez, fotokopia baino, originala nahiago omen du jendeak. Zergatik ez Le Pen bozka beraz? Hain justu, Nicolas Sarkozy barne ministro ohiak Le Penen betiko leloak bere egiten dituelarik. Ultraeskuindarraren mezua horrela "desdeabruturik" dago. Segurtasuna aipaturik ere bai! Arazo guztien zergatia etorkinak direlarik noski. "Frantzia maitatzen da ala alde egin behar!" dio eskuineko buruak, Le Penen antzinako mezua berreskuratuz! Gauza bera gertatzen da Le Penek aldarrikatzen duen frantses nazionalismoaren alde –bandera, himnoa eta guzti– Sarkozy, de Villiers (eskuineko soberanista) eta Royal ere zeingehiagoka ari direlarik. Le Penek aski du itxarotea, besteek bere kanpaina egiten duten bitartean. Berdeak, ezker-ezkertiarrak eta Bayrou (zentrista, mementoko hirugarrena boto intentzioetan) ez dira Le Penen tranpan erori. Baina boto intentzioen %35 baizik ez dituzte batzen.

Bost urte iragan dira eta ber gauza?

Allande Boutin

Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: ☐ Bankuz
☐ Taloez
☐ Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–

Aukeratu ongi etorri oparia

“Ardibidez” mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Mokogorri” puzzleak

%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian



ALDAKETAREN EZBAIAN



Ezbaia, hauteskunde presidentzialei doakien hitza. Aspaldi ez da ikusi hautesleen aldetik horrelako sukarrik. Datu bat: bi milioi hurbil hauteslek —orain arte baliatua ez zutena— bozka baimenaren lortzeko urratsa eman dute. Aldaketa eragin lezakeen datua. Bizkitartean,

inkestean arabera anitzek ez dakite nori eman botoa. Hautuak ez dira alta, ezkerra eta eskuinaren artean iraganean bezain alderdikatuak. Zergatik ote?

Diru aferak, agiantzak ez beteak, hautetsi adinetakoak beren karguari eratzikiak, emazteak baztertuak... hautesleek konfiantza galdu dute ordezkari politikoetan. 2002ko apirilaren 21ean, Jospin ezkerreko hautagaia baztertua izan zen, Le Pen eskuin muturraren abantailengan. Hautesleek 2005eko erreferendumean Europako konstituzioari ezetz erran zioten, alderdi handien iritziairen kontra. 1981az geroztik, ezker eta eskuina aldizkatu dira gobernuan aldaketa handirik eragin gabe. Konfiantzaren galtzearekin, alderdi nagusien alde joan ordez, bozkaldiak bi muturretara lerratzen ari dira. Beste arrazoi nagusia, kanpainari interesa eta garrantzia ematen diona: ekonomia eta gizartearen krisi larria. Langabezia Europako handienetarik da, bereziki gazteen artean, sekulako zorra gure ondokoei utziko dieguna. Hiri auzoetako krisia. Erretiro sistema ez bermatua. Gizarte segurantzak, eskola, eta unibertsitateak krisi larrian. Frantziarrek badakite, goiz edo berant, neurri gogorak hartzeko garaia dela, ezin direla gehiago atzeratu. Funtsean, Europako beste estatuetan eginga izan dena, hemen ere egin beharko da. Errealitatea gorde gabe gobernatuko duen norbait nahi dute hautesleek. Nor izanen da salbatzailea?

Eskuin aldean egoera franko argia da. Nicolas Sarkozy bereganatu ditu indar gehienak. Segurtasuna eta inmigrazioaren lema errepikatuz, Le Penen eskuin muturrari botoak murrizten saiatu da eta inkestean arabera neu-

rri batean lortu ere bai. Eskuin gogor eta idor baten politika proposatzen du UMPko hautagaia aurpegia gorde gabe.

Ezker aldean egoera nahasiagoan murgilduta dago. Ezkerrak bi adar ditu: lehena, sektore publikoa, funtzionarioa, sindikatu zenbait eta ezker erradikalaren inguruan, ohiko sozialismoaren ametsen bizi dena, baina “estatuko burgesia tipiaren” kontserbadurismoa islatzen duena. Europako konstituzioari ezezkoa emanik, bere etsaia, Tony Blairrek bideratu “sozial liberalismoa” da. Beste ezkerrak modernoa izan nahi du, gaurkotua, merkatu eta mundializazioa egokitu nahi ditu, Ipar Europako sozial demokrazien moldera. Lehen sektoreak ez dio erreferendumaren emaitzari etekinik atera, lau hautagaien artean zatiturik aurkeztuz. Ustekabek agertua, Ségolène Royalen lidergoak egoera erreberitu du Alderdi Sozialistaren lerrotan. Lider historikoak baztertuak, segurtasuna edo lana bezalako lemak gaurkotuak, giro freskoa ekarri dio alderdiari. Aldaketaren promesa gutienez, familia hazi duen ama batek jakinen duela nehorik baino hurbilagotik, jende xumearen beharrak kontutan hartzen, nahiz eta bere proposamenek sinesgarritasun eskasa izan, zenbaiten arabera.

Ustekabe handiena Bayrou zentristaren arrakasta da. Ustekabea eta ezezaguna. Inkestek Sarkozy ala Royalen heinean ezartzen dute. Nehorik ezin erran, zein izanen diren bigarren txandarako geldituko diren bi hautagaia. Bayrouren indarra, gizartearen eta ekonomiaren gai nagusiez eta minberez mintzo dela; bere ahulezia, alderdirik eta, beraz gehiengorik ez duela izanen legebiltzarrean eta proposamen zehatzak eskas.

Ustekabea ezin da baztertu eta, aukera guti izanik ere, Italiako moldean, sozialdemokrazia eta demokrazia-kristaunen arteko aliantza ezin da baztertu. Aldaketa historikoa dudarik gabe. Aldeko gero eta gehiagok galdatzen dutena, egoeraren larritasunari buru egiteko.

Agustin Errotalehere

Royalek bozak kenduko dizkionik. Sarkozyren kultua indarra da. Bere lema frantziarren segurtasuna bermatzea da, eta Le Pen arerio zuzenari bozak irabazteko jarrera tinkoa. Sarkozy UMPko —zentro-eskuineko mugimendua— presidentea da eta Estatuko presidentea izateko faborittoa. UMPko alderdikideen hitzetan, boterearekiko bulimia izugarria dauka, ordea. UDFko presidentea François Bayrou du bigarren arerio zuzena. 1993an, UDF eta RPR alderdiek bat egin zuten ezkerreari aitzitik egiteko. Iraganen aliatuak izandakoak arerioak dira oraingoan. Sarkozy Royal nahiago du bigarren itzulira pasatzea.

Ségolène Royal

Ségolène Royalek PSko gizonetako edo baronen sostengua dauka. PSko presidentea François Hollande du senar eta bere lau semeen aita. PSren hautagaia da bozen %60,60 erdietsi ondoren. Laurent Fabius (%18,50) lehen ministro eta Dominique Strauss-Kahn ekonomia ministro ohiak (%20,8) gauditu zituen alderdiaren primarietan, bi-biak pisu handiko politikariak. Royalek emakume askoren begirunea dauka, baita gizonetako ere. Erakargarria da. Indarra eta hauskortasuna islatzen ditu. Esaterako, bikote gay-en ezkontza gai biziki polemikoa da Frantzian. Royal bikote homosexualen ezkontza juri-

dikoki, sozialki eta kulturalki arautuko dituen proiektua lantzen ari da. Batzuen ustez, ordea, pertsona sinplegia da politikaria izateko. Beste zenbaitek berriz, pertsona bitxia eta hurbiltzat dute. Alderdiko illoak batu ditu eta hautagaitzarako arerio izan dituenak sostengua ematen ari zaizkio kanpainan. Alderdiaren barne sareak ehuntzen trebea da, antza.

François Bayrou

François Bayrou UDFko presidentea da. Bearnesa. Pirinio Atlantiarreko presidentea eta Frantziako Hezkuntza ministro izana 1993tik 1997ra bitartean. Ipar Euskal Herrian ezaguna da oso, Seaska ikastoletan aritutakoen

artean bereziki, eta euskaltzaleen eta abertzaleen artean oro har. UDF, UMP alderditik aldentzea izan da bere lorpena. PSko Dominique Strauss-Kahnen aldarrikapen politikoekin bat egin du zenbaitetan. Hezkuntza Nazionala erreformatu izanaren "ospea" oroitarazi du han-hemenka. Presidente erreformatzailatzat da bere burua. Sarkozyren politikarekiko zeharo kontrajarria dela dio, ez ordea Royalekiko. Royal baino aurrerazaleagoa dela adierazi du kanpaina eta honen boz asko bilduko ote dituen errezeloa indartzen ari da. Sarkozy eta Royal ez bezala, 2002ko hauteskundeetan ere lehiatu zen presidentziarako. Hedabideek azpimarratu dutenez, Bayrou bere proiektua arerioek baino argiago azaltzen ari da.

Hedabideak, inkestak, programak

Boza emateko hamar egun falta direnean, bozkatzaileen %40k ez du orainokoa boza nori eman erabaki. Kanpaina hasi aurretiko inkestean arabera Sarkozyk bozen %30 bereganatuko luke. Royalek %27, Bayrouk

%18, Le Penek %12. Michel Rocard ministro ohiaren ustez, hedabideek kanpaina diktatzen dute. Hedabideek errege-erreginak eraikitzen edo eraisten dituzte. Royal erregina bada, Sarkozy erregea. Nolanahi den ere, lau hautagai nausien ustez, inkestek errealitatea ezkututzen dute. Sarkozyren gustuz azkarregi ematen dituzte

Hiru errege-erreginen programek ez dute diferentzia nabarmenik, diskurtsoetan ez dago alde handirik

datuak, ez da fio. Royalek eta Bayrouk bozkatzaileen asmoak nahasten dituztela diote eta funtsean Le Penen datuak ezkututzen dituztela. Le Penek inkestak beti tronpatu direla dio. Inkestak inkesta, Frantzian ere pentsamendu bakarra nagusitu bide da.

Le Pen hautagaia alde batera, hiru errege-erreginen programek ez dute

diferentzia nabarmenik: Estatuaren erreforma gauzatzea; VI. Errepublika ekar lezakeena. Kanpoko zorra gutxitzea. Langabezien formazioa sustatzea eta zerbitzu zibikoa indartzea, besteak beste. Diskurtsoetan ez dago alde handirik. Esaterako, hiruetatik inork ez du asteko 35 orduko lanaldia bertan behera uztea proposatu, baina bakar batek ez du ere aldeko kanpaina egiten. Nabardurek ezberdintzen dituzte hautagaiak, hitzek alegia. Ipar Euskal Herriaren eta euskararen eza-gutzari dagokionez hitz zehatzik ez dute erabiltzen, ordea.

Pentsamendu bakarra, "gurean" ez

Jacques Chiraceren pentsamenduan herri bakarra frantziarra da. Kanpaina hasi den egunean Jose Bove hautagai altermundialistak Euskal Herriaren ezagutza aldarrikatu du Ainize-Monjelsen, ELBk bultzatutako Laborantza Ganbararen aitzi-nean. Alderdi abertzaleek ez dute hautagai zehatz bat sostengatu publikoki. Batasunak abstentzioa aldarrikatu du. "Gurean" pentsatzeko eta aritzeko moldea ez da bakarra. ■

Non dira
Hiru idaz

KARIDADEKO BENTA
Gael Quince

KONKITA
Aritz Etxepare

ATERKINGO
Aritz Etxepare

TXUMA/ RAFA/ PETTI
Hiru idaz

INAKI SALVADOR NONETO
Fama

+ Mahaster River, Mikel Aranzabal, Jeronimo Martin Trio, Zafari Project...

KEU
Ondarra elektrikoa, dinamizkoak

BAPI
Bapi Bax, adurki

JON GURRUTXAGA
Bary Gallagher, Herriak eta laulak

XABI BORDA
Jotaka, Unan pop

TXUMA MURUGARREN
Larrasbena, Irteera

IKOR KOTX
Rock & Klok, Argaski liburua

WWW.HOTSAK.COM

gastelupeko HOTSAK
Tel: +34 942 750116
Fax: +34 942 750139
gastelupeko@hotsak.com